



Lagun agurgarriak

Elkagoak elkargokideen artean Gobernu Batzordea berritzeko kanpaina egin ondoren profesional talde batek hautagai-zerrenda osatzeko konpromisoa hartu eta Elkargoan hauteskundeak berriro ere abian ditugu.

Dagoeneko, datorren ekainean burutuko den Gobernu Batzordearen Hauteskundearen deialdi eta prozedura osoa jaso duzue. Hautagai-zerrenda osatzen duten lagunek lan-talde giza eratzeko aspalditxo dihardute Elkargoak dituen betebeharrak ikasateko eta etorkizuneko jarduerak lehenesteko.

Talde berria pixkanaka hurrengo hilabeteetan betebeharren zereginen ardua hartzeko, egungo Gobernu Batzordeko kideak, eta aurreko Batzordeko lagunak ere, aurreneko etapetan gertutik lagunduko diogu.

Elkargokide guztiei Elkargoko eginkizunetan parte hartzeko animatzen zaituztegu, honek lanbidea eratzen eta definitzen laguntzen dizkigu eta. Edozein gauzetan interesatuta zaudetela Elkargoak garatzeko aukera eman nahi dizue.

Funtzioko Elkargoko Batzordea

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



**Gizarte Hezkuntza VII. Kongresua** Andalucian 2016ko apirilean egingo da. Batzorde Eratzailea CCGCEES eta CoPESA, elkargo anfitrioiak. Honi buruz sortuko diren berriei informatuko dizkizuegu.



**CGCEESek Ongizate Estatuaren defentsarako** sostegua eman du. Hurrengo foroetan bezala ("La Cumbre Social", "La Marea Naranja", ...) krisi hau hiritar eta gehien paraitzen duten pertsonak laguntza ematen dizkien gizarte zerbitzu sarea defendatzeko ahaleginetan egin du.

Aliantza honetan hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzueta-ko 17 Elkargo parte hartzen dute.

Aliantza honen gainean gehiago ezagutzeko [hemen klikatu](#)

## GHEE-CESPVREN BERRIAK

### ❖ Gizarte hezitzaileek lan-jarduerak gauzatzean jasaten dituzten erasoetarako Topaketa



teetako ikasle eta irakasle ere elkartu ginen.

GHEE-CEESPVko Donotologia Batzordeak gai hau bi urte atzera hausnartzen hazi zen. Gaiari heltzeko 2015eko otsailaren 12an topaketa burutu genion eta haibat lagun bertaratu zen. Hiru lurraldetako gizarte hezitzaile eta haiek lan egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuetako arduradun, baita titulu hau jorratzen duten unibertsitateetako ikasle eta irakasle ere elkartu ginen.

Gaiari interesa partideen kopuruan ez ezik esandako azebetetze mailan ere isladatu zen. Hainbat erakunde adierazitako gaia sakontzeko beharra Deontologia Batzordea hausnartzeko langun izango dugu.

[Irakurtzen jaraitu](#)

### ❖ Donotologia Batzordea etika haunarketarako lanabesa

Estatu mailako Gizarte Hezitzaileen Elkargo guztien Deontologia Batzordeak sortze bultzatzeko eta izen buruan aipatutako ideiaz 2015eko otsailaren 27an Bilbon Jardunaldira dei egin genuen. Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak antolatuta eta EHU/UPVko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusiaren laguntzaz.

Parte hartze handia aipatzekoa da, 100 lagun baino gehiago, baita Gizarte Hezkuntza taldearen aniztasuna: GHEE-CEESPVren ordezkariak, haren Deontologia Batzorde osoa, elkargokideak, eta EHU/UPVeko irakasleak eta ikasleak eta Deustoko Unibertsitateko ikasleak. Azkenik, **Estatuko Gizarte Hezitzaileen Elkargoen ordezkarien presentzia aipagarria izan zen, 13 lagun guztira.**



*Amaieran, jardunaldiaren helburuak lan beharrak eta etorkizunerako planak bilakatu ziren.*

*Gizarte Hezkuntzako etika deontologikoen garrantzia estabaidatu eta egiaztatu dira, profesional eta unibertsitateko ikasle eta irakasleen artean, baita halako topaketak egiten jarraitzea ere.*

*Estatu espainiarrean Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkargoen egoerari buruzko informazioa analisatu eta eguneratu genuen*

*Batzorde Deontologiko ekintzaileak suspertzeko balioaz hausnartu genuen.*

*Estatu mailan Batzorde Deontologikoak sortzeko prozedura abian jartzeko dituen ahalmen, ostopo eta aukerak identifikatzeko beharra ikusi genuen.*

*Lanbide elkargoentzako laguntza etikarako komunikazio plan bat eratuko da eta haien artean informazioa eta prestakua partekatzeko eta iritziak bateratzeko sare bat osatuko da, horrela, erakunde bakoitzak hazteko ahal duen erritmoa jarriko du.*

Etika eta Deontologia Batzordeak konklusioak jaso eta argitaratuko ditu; Espainiako Estatuko Lanbide Elkargoetan deontologia batzordeak eratzeko prezedurari bhotz eman eta motibatu CGCEESren mandatua jarrituz eta Elkargoetan dauden batzordeak mantentzeko eta hazteko elkarlanean aritu. Ahalengin hauek guztiak Kontzeiluan batzorde berri bat sortzeko asmoz ari gara beste Elkargoentzako Deontologia Batzordeak eratzeko eta abiarazteko lagungarri izan dadin.

[Irakurtzen jarraitu](#)

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA



**DERECHOS  
ESKUBIDEAK** +  
*Irrika eta aldarrika*

Ines Picok, Gizarte hezitzailea eta gure elkargokide, GHEE-CEESPVren Elkargokide 12 Zkdn. Diru sarrerak bermatzeko errenta sustatzeko artikulua kanpainaren alde adierazteko idatzi du

**GIZARTE HEZKUNTZA, DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (DBE) ETA GIZA DUHINTASUNA**

Inork gutxi jarriko du zalantzan, dagoeneko, gure sistema sozioekonomikoa bidegabekoa eta baztertzaila dela, eta gauza guztien gainetik hazkuntza ekonomikoa jartzen duela, eta, horretarako, pertsonak eta hauen kultur, gizarte eta bizitza interesak erabiltzen dituztela.

Horrela, eta J. Subirats-en hitzetan, "gizarte bazterkeria egiturazko fenomeno da eta, nolabait, ezinbestean sortzen eta elikatzen duen sistema ekonomiko eta sozial baten logikari berari lotuta dago". Egoera hori areagotu egin da azken urteotan; izan ere, eredu honek ez du gehiagorako ematen eta talde eta kolektibo zaugarrietan egiten du kalterik handiena.

Hain zuzen ere, arlo horretan du Gizarte Hezkuntzak bere lan-markoa. Gizarte Hezkuntza "Zuzenbidezko Estatu baten funtsezko balioen zerbitzurako hezkuntza prestazio" gisa ulertuta: Herritar guztien berdintasuna, gizarte justizia kuota gorenak eta bizikidetzaren demokratikorako garapen osoa" - ASEDES-. Gizarte Hezkuntza ezin da geratu pertsonen bizi duten zaugarritasun, bazterkeria eta zailtasun egoerei erreparatu gabe, norberaren gauzak balira bezala jokatzuz; izan ere, esan dugun bezala, egiturazko zerbait da eta, ondorioz, Gizarte Hezkuntzak hori egon behar du: gauza horiek salatzen diren lekuan, bidezkoagoak diren proposamenak -ez baztertzailak- dauden lekuan, giza duintasunaren aldeko apustua egiten den lekuan.

Euskal Herriko hezitzaileen Deontologia Kodea argia da honako hau esaten duenean: gizarte hezitzaileek euren gizarte- eta heziketa-esku hartzean etengabeko elkarrizketa eragin behar du, Giza Eskubideen printzipioak bete daitezzen eta gizarte eta heziketa ekintzaren subjektuak errespetatu daitezzen lorzeko.

Gizarte hezkuntzak, oinarrian, pertsonen, taldeen bizitza-prozesuei egiten die lagun, eta, era berean, pertsona eta talde hauek euren eskubide eta betebeharrak dituztela ulertzen du. Hori dela eta, pertsonen existitzeko, oinarritzko beharrezkoak betetzeko eta duintasunez bizitzeko aukera ematen dieten diru-sarrera batzuk bermatuta dituztenean esku-hartzen du Gizarte Hezkuntzak.

Hori betetzen ez denean, gaur egun geratzen den moduan, hezitzaileek ezin dugu beste alde batera begiratu: ondoan ditugun pertsona horiek eskubide osoko herritarrak izateko aukera ematea eta hala sentiaraztea exijitu behar dugu. Ez da karitate kontua; justizia, eskubide eta duintasun kontua da, eta Gizarte Hezkuntzaren bokazioa hori da eta hori izan behar du.

Azken aldian, Oinarritzko Errenta Unibertsalaren alde lanean dihardugu, eta horrek izan behar du Hezitzaileen Elkargoaren eta inplikaturako beste eragile batzuen lanerako borondatea. Herritar guztientzako Oinarritzko Errenta Unibertsalak ez du berau jasotzen duena estigmatizatuko, lan merkatuaren prekaritate eta esklabotza saihestuko du, eta lan merkatuan behar bezala balioetsi gabeko beste herritar batzuen lanari balioa eman eta inbertitzeko aukera emango du: adinekoen zaintzari, familiari dedikazioari, gizarte arloko ekintzetan parte hartzeari, e.a.

Horraino iristen ez den bitartean, bidezkoa da aitortzea gure erkidegoan aurrerapauso handiak eman direla, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta funtsezkoa baita txirotasuna murrizteko eta geldiarazteko: txirotasuna eta bazterkeria pertsonengandik kanpo kokatzen du, egiturazko zerbait bezala.


Pertsonen euren existentzia eta duintasuna estalia duten neurrian baino ezin izango zaie lagundu gizarte eta hezkuntza ibilbide batean aurrera egiten. Horregatik guztiagatik, Oinarritzko Errenta Unibertsalera iristen ez garen bitartean, nahitaezkoa da Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari eutsi eta horren alde egitea.

## INTERESGARRIKOAK



### Acción Social 2.0. Para crear, compartir y reinventar

Autor/es: Óscar Martínez y Anna Forés Editorial: Eduvim, 2014




### Programa de intervención para prevenir y reducir el ciberbullying.

Ojos Solares. Programas, Madrid, Ediciones Pirámide, 2014, 297 p. Garaigordobil, M., y otros

El bullying y el ciberbullying suponen por su extensión y sus efectos (ansiedad, depresión, somatizaciones, problemas académicos, etc.) un problema que hay que prevenir y afrontar. Para ello,



REVISTA DE EDUCACIÓN SOCIAL



### RES nº20 Educación social y derechos humanos

RES está preparando el número 21 con el título **Educación Social y Género.**

Información próximo número:


<http://www.eduso.net/res/20/articulo/numero-21-educacion-social-y-genero>

Orientaciones sobre cómo colaborar con RES, Revista de Educación Social:

<http://www.eduso.net/res/colaborar>



**Eusko Jaurlaritzaren III Gazte Plana 2014-2016.** Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2014, 96 orrialde.



### "#EDUSOHISTORIAS - Un Viaje por la Educación Social"

Una nueva iniciativa del Equipo de Educablog permite que podamos disfrutar de la experiencia de Educadoras y Educadores Sociales a través de 23 relatos breves y dos prólogos.

La virtud de Educablog ha sido de animar a escribir y coordinar los esfuerzos necesarios para que todo ello vea la luz en formato de libro, con textos llenos de vida, la de sus protagonistas y de algún modo la mirada de los profesionales que acompañan las historias, además de las magníficas ilustraciones de Anna Fonollosa.

El Colegio de Educadoras y Educadores del País Vasco GHEE-CEESPV y Educablog se han embarcado en la divulgación del mismo. Ya se ha hecho en Bilbo y Gasteiz con gran participación de público, siendo una fiesta de la profesión. [El próximo 14 de mayo se hará en Donosti.](#)

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN [ceespv@ceespv.org](mailto:ceespv@ceespv.org) RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**